

Bezeroekin harremana

Flexxx Sports-ek bezeroekin harreman hurbila eta konfiantzazkoa izatea du helburu. Horretarako, arreta pertsonalizatua eskainiko du batez ere kanal digitalen bidez, hala nola webgunea, sare sozialak eta posta elektronikoa. Bezeroei laguntza emango zaie produktuak aukeratzerakoan, neurriak, materialak eta kirol-jarduerarako egokitasuna kontuan hartuta, erosketak esperientzia erraza eta atsegina izan dadin.

Bestalde, markak bezeroen leialtasuna sustatuko du komunitate bat sortuz eta komunikazio jarraitua mantenduz. Sare sozialen bidez edukia partekatuko da, kirolari, osasunari eta jasangarritasunari lotuta. Gainera, salmenta osteko zerbitzu on bat eskainiko da, aldaketak eta itzulketak modu azkar eta argian kudeatuz, bezeroak pozik eta seguru senti daitezen.